



Arartekoaren ebazpena, 2011ko otsailaren 28koa, Amorebieta-Etxanoko Udalari hirigintzako legezkotasunaren aurka lur-zati baten baso erabileragatik egindako salaketa bat izapidetzeko gomendatzen diona.

Aurrekariak:

1. Pertsona talde batek azaldu digu Amorebieta-Etxanoko Udalak ez diola erantzun egin duten salaketari, hirigintzako legezkotasunaren aurka baso erabilera egitearen kontrakoa. Erabilera hori udalerrri honetako landa lurreko katastroko 20. poligonoko 19 eta 32. poligonoetako 169. lur-zatian egiten da.

Salaketa 2009ko apirilaren 6an aurkeztu zen udal erregistroan. Idazkian udalaren esku hartzea eskatu zuten, "*pinus insignis*" zuhaitzen legez kanpoko landaketa bat dagoelako, Planeamenduko Arau Subsidiarioen aurka doana.

Salaketan azaldu zutenez, lur-zatiak lurzoru urbaniza ezinean daude, araubide komunekiko nekazaritza eta abeltzaintza erabileretarako xedea dutenak. AASSen 3.3.6 artikulua definizioaren arabera, lurzoru horiek nekazaritzako funtzioetarako edo kalitate ertaineko larreetarako erabili beharreko lurak dira. Nolanahi ere, AASSen 3.3.7 artikulua berriaz baimenduta ez dauden erabilerak debekatzen ditu. Haien artean baso erabilerak sartzen dira.

Azaldu zigutenez, erreklamazio egileek salaketa 2009ko uztailaren 14an eta 2009ko urriaren 20an errepikatu zuten. Azken idazki horretan, salatutako lur-zatietan hirigintzako legezkotasuna berreskuratzeko jarduketa egokiak hasteko eskatu zuten.

Baina 2010eko ekainaren 2an ez zuten udalaren erantzunik jaso. Horregatik, erakunde honen esku hartzea eskatu zuten.

2. 2010eko ekainaren 28an erreklamazio hori izapidetzea onartu genuen eta Amorebieta-Etxanoko Udalari informazioa eskatu genion, hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko egin zituen udal jarduketei buruz. Gai honetaz hartutako udal erabakien kopia ere eskatu genion.

Informazio hau bidaltzeko eskatu ondoren, Amorebieta-Etxanoko Udalak 2010eko irailean idazki bat bidali zigun, gai honetaz dagoen dokumentazioarekin.





Informazio horren barruan lehenengo espediente bat dago, erreklamazio egileek eskatuta izapidetu zena, 2003. urtean baso erabilera salatu zutelako, planeamenduaren aurkakoa, 19. poligonoko 169 b) eta 169 c) lur-zatietan. Udalak ondorioztatu zuen baso erabilera hirigintzako erabileren aurkakoa zela eta 2004ko apirilean dekretatu zuen pinuen landaketa kendu behar zela. Landaketaren titularrak ebazpen hau errekurritu zuen administrazioarekiko auzien epaitegi egokian. Errekurtsoa ezetsi egin zen. Amorebieta-Etxanoko Udalak dekretua berretsi zuen, 2009ko martxoan eman zuen dekretu berriaren bitartez.

Aurrekari hauen ondoren, erreklamazio egileek udalaren esku hartzea eskatu zuten berriro ere 20. poligonoko 19 eta 32. poligonoetako 169. lur-zatiari dagokionez, planeamenduan araubide komuneko nekazaritza eta abeltzaintza erabilera batez kalifikatuak.

Udalari bidalitako informazioan ez dago erreklamazio egileek 2009. urtean egindako salaketan osteko udal jardunik. Salaketa horietan udalaren esku hartzea eskatu zuten, erreklamazioaren zio nagusia izanik.

Gerora, 2011ko otsailaren 3an, erakunde honek udaleko zerbitzuei salaketaren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa eskatu die telefonoz. Jaso dugun informazioaren arabera, ez da inon ageri harrezkero udal jarduketarik egin denik.

Informazio hau ikusita eta kexa egin dutenek alegatutako gainerako inguruabarrak kontuan izanik, eta edukiak aztertu ondoren, hona hemen ondoko

Gogoetak

1. Kexa honen zioa kexaren sustatzaileek egindako eskaerari erantzun ez zaiola da. Kexa hartan baso erabilera bat salatu zuten, udalerrri honetako landa lurreko katastroko 20. poligonoko 19 eta 32. poligonoetako 169. lur-zatian, hirigintzako legezketasunaren aurkakoa delako.

Udalak Arartekoari emandako erantzunean ez da ageri 2009ko martxoan egindako salaketari (eta gero bi aldiz gehiago errepikatutakoari) erantzuteko izapiderik egin denik.

2. Abiaburu gisa, gogoratu behar dugu interesatuek egiten dizkieten eskaera guztiei berariaz erantzun behar dietela administrazio publikoek.

Horrela, Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 42. artikuluan betebehar hori berariaz jasotzen da, administrazio publiko guztientzat.





Arau honetako zioen azalpenak hau agintzen du: *“lege honen helburua ez da administrazioaren jarduerarik ezari izaera positiboa ematea partikularrak hari zuzentzen zaizkionean. Administrazioaren jarduerarik ezaren izaera positiboa legearen benetako helburua betetzen ez denean ezartzen den bermea da; legearen benetako helburua herritarrek administrazioaren berriazko erantzuna jasotzea eta hori ezarritako epean jasotzea da. Administrazio isiltasunak, nola aldekoa hala kontrakoa izan, ezin du ezarpen juridiko arrunta izan, baizik eta, Administrazioak dagozkion eginkizunak modu eraginkorrean eta arin betetzen ez dituenean, partikularren eskubideak edukirik gabe gera ez daitezten bermatzen du.”*

Horregatik, esan behar dugu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak izapidetu behar dituela udalak, azkar eta modu eraginkorrean, harik eta espedientea amaitu arte edo behin betiko ebazpena eman arte.

Era berean, esan behar dugu, ebazteko epea amaitu arren, erantzun beharrak irauten duela, eta ebazpena eman behar duen organoaren titularrari diziplinako erantzukizuna sortu ahal diola.

3. Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isilbidea oso kaltegarria dela. Izan ere, isilbideak defentsarik gabeko egoeran uzten ditu herritarrak, ez baitakite administrazioak zein borondate duen haien eskaerei buruz eta ezin dute eskatutakoaren erantzuna berrikusi.

Herritar hauen erreklamazioen aurrean instrukzioko izapide egokiak ez egitea eta administrazioaren erantzunik ez izatea administrazioaren funtzionamendu ez-normala da. Eta Arartekoaren erakundeak hala adierazi behar du.

Prozedura izapideak existitzearen eta herritarrei benetako erantzuna ematearen bermea Espainiako Konstituziotik eratortzen da (103.1 eta 105. artikulua), herritarrek administrazio ona edukitzeko duten eskubidean txertatzen dena. Eskubide hori Europako Batasunaren Funtsezko Eskubideen Gutunaren 41. artikuluan aipatzen da, Europarentzat Konstituzio bat finkatzen duen itunak hor sartu zuena.

Aitzitik, administrazio txarraren kasu bat da artikulua hauetatik ondorioztatzen den ardura funtzionaleko betebeharra ez betetzea, zehazki, ondokoak ez betetzea: erreklamazioa jaso dela adierazteko betebeharra; zerbitzu eskudunari bidaltzeko betebeharra, eta aurkeztutako erreklamazioei arrazoizko denbora-epean erantzuteko betebeharra.

Gauzak horrela, Arartekoak berriro adierazi nahi du udalak erreklamatzailen idazkiei ahalik eta azkarren erantzun behar diela.





4. Bestalde, hirigintzako diziplinaren eremuan, hirigintzako antolaketak araututako egintzen kontrolean esku hartzeko eskumena daukate udal administrazioek, hirigintzako ikuskaritzaren bidez eta hirigintzako lizentzien bidez.

Hain zuzen ere, hirigintzako diziplinako ahalmenei ezin diete uko egin agintariak eta funtzionarioek, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak agintzen duenez. Zehazki, hau adierazten da bigarren idatz-zatian:

“Titulu honetan arautzen diren ahalez baliatzeari ezingo zaio uko egin. Horretarako, agintari eta funtzionarioak behartuta daude ahal horietaz baliatzeko ezarritako prozedurak hastera eta izapideak egitera, kasu bakoitzerako aurreikusitako epearen barruan. Eginbehar hori ez betetzeak diziplina-erantzukizuna ekar dezake.”

Erantzuteko eta hirigintzako legezkotasuna berrezartzeko neurri egokiak ezartzeko betebeharra salatzailearen eta salatutakoaren artean egon litezkeen balizko liskarretatik bereiztu behar da.

Hirigintzako diziplina eta ikuskaritzako ahalmena halabeharrez lotuta daude udal planeamendua eta hirigintzako legeria betetzearekin. Partikularrek ez jarduteak ez du hirigintzako legezkotasuna defendatzeko funtzio publiko hori kaltetu behar.

Horregatik, udal administrazio horrek, kasu bakoitzean ezarritako epeetan, agindu zaizkion ikuskaritza, egiaztapen eta kontrol ahalmenak gauzatzeko ezarrita dauden prozedurak hasi eta izapidetu behar ditu.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, ondokoa egiten dugu:





1/2011 GOMENDIOA, otsailaren 28koa, Amorebieta-Etxanoko Udalar

20. poligonoko 19 eta 32 poligonoetako 169. lur-zatian egindako baso erabilerengatik aurkeztu den salaketari dagozkion izapidetzeak egin ditzala eta, beharrezkoa bada, hirigintzako legezotasuna bermatzeko neurri egokiak har ditzala, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen VI. tituluak agintzen duenaren arabera.

